

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Atal honetan azaldu ditugu GeoSegur martxan egoteko behar ditugun eguneroko eta epe ertain/luzeko jarduera nagusiak. Hauek dira gure produktua sortu, mantendu eta bezeroei balioa emateko funtsezkoak.

Produkzio Jarduerak

Hemen biltzen dira GPS pegatina eta aplikazioa garatzeko eta mantentzeko lan garrantzitsuenak.

Jarduera nagusiak

- GPS pegatina adimendunaren diseinua, probak eta fabrikazioa.
- Aplikazio mugikorraren garapena eta eguneratzea, erabiltzaile-esperientzia txukuna izateko.
- Datu-baseak eta segurtasun digitala ondo mantentzea, objektuen benetako babesa bermatzeko.

Beste lan batzuk

- Materialen hornidura (txipak, bateriak, pegatinak...).
- Produktuen paketatzea eta bidalketa.

Arazo-konponketako Jarduerak

Bezeroek izan ditzaketen arazo teknikoak edo eskaerak kudeatzeko jarduerak.

Jarduera nagusiak

- Aplikazioaren eta GPS pegatinen akatsen diagnostikoa eta konponketa.
- Laguntza teknikoa: email, WhatsApp eta sare sozialen bidezko arreta.
- Segurtasun-alerten sistema ondo ibiltzea eta behar denean optimizatzea.

Beste lan batzuk

- Bezeroen iradokizunetan oinarritutako hobekuntzak egitea.

Bezeroari erantzuteko modua

Bezeroak arazo bat badu, aplikazioaren bidez jarri daiteke gurekin harremanetan. Ikusten bada arazoa pegatinaren akatsa dela, beste pegatina berri bat emango diogu.

Plataforma edo Sareko Jarduerak

GeoSegurren online presentzia, komunitatea eta salmenta-kanalak kudeatzeko jarduerak.

(Hemen jartzen ditugu guk zuzenean kudeatzen ditugun lanak; bazkide estrategikoak beste atal batean sartuko dira).

Jarduera nagusiak

- Webgunea, online denda eta aplikazioaren kudeaketa.
- Marketin digitala eta sare sozialetako presentzia.
- Gure salmenta-kanalen eta elkartuen (Amazon, denda teknologikoak...) koordinazioa.

Beste lan batzuk

- Banaketa eta bazkideekin koordinazio orokorra (teknologia enpresak, diseinu hornitzaileak, eragile digitalak...).
- Datuen analisia: mugimenduak, erabilera eta bezeroen portaera ezagutzeko.

LABURBILDUZ

- Produkzioa: GPS pegatina eta aplikazioa garatzea, materialak eta segurtasun-datuak zaintzea.
- Arazo-konponketa: laguntza teknikoa, incidenciak konpontzea eta segurtasun-sistemak ondo mantentzea.
- Plataforma/Sarea: webgunea eta marketina kudeatzea, baita salmenta-kanalak eta gure sare propioa ere.